

## Hainbat gazte 'Aitor' zinean sartu ziren atzo "espekulazioaren aurkako" ekintzan

■ Espekulazioaren aurkako jardunaldiak antolatu dituzte aste bukaera honetarako, eta atzo eguerdian Aitor zinean sartu ziren manifestazio baten ondoren ■ Ertzaintzak atera arazi zituen barruan zeudenak.

AITOR zinea zena okupatzen saiatu ziren atzo hainbat gazte. Eguerdiko 12:00etan espekulazioaren aurkako manifestazioa egin ondoren zinean sartu ziren. Handik gutxira zinearen jabeak eta ertzaintza joan eta handik atera zituzten. Ertzaintzak zine barruan zeuden hiru gazte identifikatu arazi egin zituen. Identifikatuen abokatuak ere bertan zeuden.

Atzo eguerdian gertatutakoak jende askoren arreta piztu zuen eta Aitor zinea zenaren aurrean jende dezena bildu zen. Horien artean zeuden Ereñotzuko etxe okupatuan bizi diren bi pertsona eta Ertzaintzak horietako bat errekonozitu eta identifikatzeko eskatu zion.

**"Espekulazioaren aurka"**  
Zinea okupatu aurretik zabaldu zuten komunikatuan adierazi zutenez "lokal hau



Aitor zinean sartu ziren momentua.

hutsik mantendu izana lotsagarria da. Musika kultur edota gizarte arloko taldeen dinamikak aurrera eramatea azpiegitura ezinhobea itxita egon da".

**Kontzertua eta bazkaria**  
Espekulazioaren aurkako jardunaldi hauen barruan gaur ere ekimenak izango dira. Eguerdian, babarrun jatea izango da 14:00etan Tilo-

setan. Ondoren mahaiungurua eta bideo emanaldia antolatu dute eta gauero 20:30etan kontzertua izango da, Keike, Valium Generation eta Afonia taldeekin, Tilosetan. □

## Errapia artista taldearen festa gaur Zikuñagan

■ Zikuñagako eskola zaharrean dira saioak.

ERRAPIA Kultur Elkartean biltzen dira Hernaniko hainbat artista. Lokala Zikuñagako eskola zaharrean dute, Zikuzulo izena jarri diote orain, eta festa hau lokalaren inaugurazioa egiteko antolatu dute. Egun osorako artez bateriko egitaraua prestatu dute eta horrekin batera egun osoko erakusketa izango da Zikuñagan, Anastasia Leundaren lanekin eta Errapiako kideen lanekin. □

EGITARAU	
<b>10:00etan</b> , Trikitilariek, haur jolasak eta marrazkiak, ipuin kontaketa, mural eta graffiti margo-zea;	<b>16:00etan</b> , bertsolariek,
<b>16:15etan</b> , Roberto Yabenen musika emanaldia;	16:30etan txalaparta;
<b>17:00etan</b> Jon Zabalaleta animazio bideoak,	<b>17:45-18:00etan</b> poesia;
<b>18:00etan</b> Morau kantari;	<b>18:30etan</b> antzerkia;
<b>19:00etan</b> txistulariak;	<b>19:00-20:00etan</b> jantzi desfilea eta dantza festa.

## Gabon kantuak gaur eta Txistulariak bihar

■ 400 lagun arituko dira gaur Elizan kantari, Kantuzek antolatutako urteroko kontzertuan, 20:00etan.

KANTUZ abesbatzak antolatuta Gabonetako kontzertua egingo da gaur iluntzean, San Juan Bataiatzailea parrokian. Ikastetxeetako taldeak, Musika Eskolakoa, Kantuz bera eta abar arituko dira kantari. Denera, 400 lagun inguru arituko dira kantari. Talde bakoitzak bina kantu abestuko ditu eta bukaera denek elkarrekin emango diote, urtero bezala.

**Txitulari Banda bihar**  
Igandean Txistulari Bandak eta Musika Eskolako zenbait txistularik kontzertua emango dute, Patxi Apezetxea zuzendari dela. Kontzertua Milagrosan da, 12:30etan. Joxe Ansorenaren Urte Berri goiza kantuarekin hasiko da emanaldia eta ansorenatarren eta beste konpositoreen 8 konposiziok osatuko dute kontzertua. □

MURUA  
PÖÖCON SORTUTAKO ETXEA  
HARATEGIA - URDAITEGIA

Larramendi 17 - 943 55 03 32  
20.120 - HERNANI

37 urtetik gora  
haragirik onena  
eskaintzen

Hernaniar guztioi  
eguberri jai  
zoriontsuak  
oia ditzkiegu...

ZORIONAK  
ETA  
ONDO PASA

10 URTE ORMAZARRETA 'ORMAXAR'  
BASERRIKO HARAGIAREKIN



**MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN ATEAK ZABALDU DITU.**

Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berri ditzue bere instalazioak eta inauguratza diox. 1500 m<sup>2</sup> baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakustokia, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekuak. Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.

**MENABI Txingurri pasealekuak, 26 · Tel. 943 40 42 43 · Donostia**

